



DIRU SARRERAK

Gure enpresaren diru sarrerak honela antolatuko genituzke:

Gure diru-sarrerak hainbat iturrietatik datoz. Lehenik eta behin, **merchandising-aren salmenta** dugu, bertan, kamisetak, sudaderak, biserak eta oihalezko poltsak eskaintzen ditugu. Produktu hauek, gure webgunean eskuragarri daude publiko guztiarentzat.



Sal neurriei dagokienez, prezioak produktuaren arabera aldatzen dira. Garestiena sudadera da, 20€-tan saltzen dugula; merkeena, aldiz, biserak eta oihalezko poltsak dira, bakoitza 5€-tan.

Aurretik aipatu bezala, gure enpresak **3 hileko kuota sistema** ezarrita du. Horren arabera, gure bezeroek 20€ ordaindu beharko dituzte hiru hilean behin. Kuota horrek hainbat abantaila eskaintzen dizkie: bazkide bihurtzeaz gain, gure ekintzetan parte hartzeko kostua merkeagoa izango dute.

Horrez gain, ekintza askok parte-hartzaile kopuru mugatua izaten dute. Egoera hori emanez gero, eta eskari handia baldin badago, lehentasuna bazkide diren pertsonen emango zaie.

Agerikoa denez, gure ekintzetan parte hartu nahi dutenek, baina bazkide ez diren pertsonen, kostu handiagoa ordaindu beharko dute, hau da, ekintzaren kostua osotasunean. Bazkide izateak abantaila ekonomikoak eskaintzen dizkie. Horregatik, bazkide ez direnek prezio altuagoak izango dituzte gure jardueretan parte hartu nahi badute.



Beraz, gure diru-iturri nagusia ekintzak dira. Izan ere, hilabetero lau ekintza egitea da gure helburua, hau da, astebururo bat. Hala ere, badira salbuespenak: uztaila eta apirila. Bi hilabete hauetan ohiko ekintzen ordez **kanpaldiak** antolatuko ditugu, txandakako formatuan.

Udaran, hiru txanda egingo dira, eta Aste Santuan, aldiz, bi. Txanda bakoitza adin-tarte jakin bati zuzenduta egongo da, eta parte-hartzaileen kopurua ere aldakorra izango da txanda bakoitzean. Hala ere, kostua bera izango da guztientzat: parte-hartzaile bakoitzak 300 euro ordaindu beharko ditu.



Aipatu bezala, gure diru-iturrietako bat **merchandising-a** da. Produktu hauetan, gure enpresaren irudia ez ezik, gure jarduerak babesten dituzten talde, enpresa edo erakundeen logotipoak eta izenak ere agertzen dira. Horrek bi helburu nagusi betetzen ditu: batetik, talde horien presentzia eta publizitatea sustatzen dugu, eta bestetik, gure enpresaren jarduerak finantzatzen laguntzen digute, diru-ekarpenen bidez.



Gure finantza-lankide nagusiak **Urpa** eta **Behar Zana Kirol Elkartea** dira, eta horiek gure proiektuen aurrerapena eta garapena bultzatzen laguntzen dute.



Horrela, lankidetzaz-esparru bat sortzen da, non **bi aldeek irabazi eskuratzen dituen**: guk baliabide ekonomiko gehiago lortzen ditugu gure ekintzak eta proiektuak aurrera eramateko, eta patrozinatzaileek gure merchandising-aren bidez ikusgarritasuna irabazten dute, gure bezeroen artean beren irudia zabaltzeko aukera izanik